**OIANGUREN PARKEAN OIANGU NATUR ESKOLAKO EKINTZAK DISEINATU, ANTOLATU ETA BURUTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO**

## BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

### 1.- XEDEA

Oianguren Parkean Oiangu Natur Eskola proiektua aurrera eramatea 2022 urtean zehar. Lan honen helburua, aipatutako tokian ingurumen hezkuntza lantzeko ekintzak diseinatzea, gauzatzea eta horretarako eskolekin koordinatzea da.

### 2.- ZEHARKAKO LERROAK

- Natur eskolan nesken eta mutilen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasunean bermatzeko bitartekoak jarriko dira: neskentzat eta mutilentzat interesgarria den eskaintza egingo da, debateetan eta erabakiak hartu behar direnean nesken presentzia eta parte hartze aktiboa bultzatuko da, genero irizpidea kontutan hartuko da espazioa banatzeko orduan, hezitzaileen paper banaketa egiteko garaian, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan, hizkuntza ez sexista erabiliz, …

- Inklusioa eta integrazioa: Haurren artean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zainduko da. Natur eskolan arreta eskainiko zaie haur bakoitzaren berezko beharrei, guztientzako eta bakoitzarentzako esanguratsua

**CONTRATACION DEL SERVICIO DE DISEÑO, ORGANIZACION Y EJECUCIÓN DE ACTIVIDADES DE LA ESCUELA DE NATURALEZA OIANGU EN EL PARQUE OIANGUREN**

## PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS

### 1.- OBJETO

Llevar a cabo el proyecto Oiangu Natur Eskola en el Parque Oianguren a lo largo del año 2022. El objetivo de este trabajo es diseñar, ejecutar y coordinar con las escuelas acciones para trabajar la educación ambiental en el citado lugar.

### 2.- LINEAS TRANSVERSALES

- En la Natur eskola se pondrán los medios para garantizar una convivencia sana y en igualdad de oportunidades entre chicas y chicos: se realizará una oferta interesante para chicas y chicos, se fomentará la presencia y participación activa de las chicas en los debates y en la toma de decisiones, se tendrá en cuenta el criterio de género en la distribución del espacio, el reparto de roles del educador, la elección de las imágenes que aparecerán en la difusión material, el uso no sexista del lenguaje, …

- Inclusión e integración: se tendrá en cuenta la diversidad existente entre los niños y niñas y se velará por su diversidad. En la Natur eskola se atenderá a las necesidades propias de cada niño y niña, desarrollando una intervención educativa

izango den eskuhartze hezitzailea garatuz. Arreta berezia eskainiko die premia berezia dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, urritasun fisikoak, etorkinak…)

significativa para todos y para cada uno de ellos. Prestará especial atención a las personas con necesidades especiales (dificultades sociales, deficiencias físicas, inmigrantes…)

**3.- ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK**

1. Erabiltzaileak

Ekintzak Ordiziako bi ikastetxeetara bideratuta egongo dira eta Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloko ikasleentzako prestatuko dira. Guztira 22 talde izango dira bi ziklotan.

2. Prestatutako jardueren izaera

Eskola honek ikasleek naturarekin hartu-eman zuzena eta atsegina izatea bilatu behar du ezinbestean, horretarako diseinatzen diren ekintzek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Prestatutako jarduerak, umeen adinera eta Oianguren Parkera egokituta egongo dira.
- Jarduera guztiak eta sortzen den materiala euskaraz izango dira.
- Parkearen ingurune eta elementu naturalak (habitat ezberdinak, faunak, florak, paisaiak, etab.) eskaintzen dituzten aukerak baliatuko dira tokiko, bereziki Oianguko, biodibertsitateari zein ohitura jasangarriei buruz modu atseginean ikasi ahal izateko.
- Diseinatzen diren jarduerak kanpoan garatuko dira baldintza meteorologikoak horrela

**3.- CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL SERVICIO**

1. Usuarios/as

Las acciones estarán dirigidas a los dos centros escolares de Ordizia y estarán dirigidas al alumnado de 2º y 3º ciclo de Educación Primaria. En total serán 22 grupos en los dos ciclos.

2. Naturaleza de las actividades preparadas

Esta escuela debe incentivar el contacto directo y agradable del alumnado con la naturaleza, para lo cual las acciones que se diseñen deben cumplir los siguientes requisitos:

- Las actividades preparadas estarán adaptadas a la edad de los niños y niñas y al Parque Oianguren.
- Todas las actividades y el material que se genere serán en euskera.
- Se aprovecharán las posibilidades que ofrecen los entornos y elementos naturales del parque (diferentes hábitats, fauna, flora, paisajes, etc.) para aprender de forma amena sobre la biodiversidad y hábitos sostenibles en el entorno local, especialmente en Oiangu.
- Las actividades que se diseñen se desarrollarán en el exterior siempre que las condiciones meteorológicas

baimentzen duten guztietan. Okerreko baldintza metereologiakoen aurrean Oiangu Natur Gela erabili ahal izango da.

- Jarduerak talde txikietan aurrera eramango dira eta hezitzaileen/haur ratioak 1/10ekoak izango dira.

- Hezitzaile-ikasle artean komunikazio ez bortitza erabiliko da.

- Haurren motibazioa pizten saiatuko duten ekintzak eta jarrerak landuko dira.

- Haurrak ez dira jarduerak egitera behartuko.

3.- Irizpide pedagokikoak

Enpresa-hartzailea arduratuko da programazio pedagogikoa egiteaz eta hura gauzatzeko elementu guztiak zehazteaz, ezinbesteko helburu hauek bete behar direla kontuan hartuz:

Euskararen erabilera suspertzea:

- Ingurumena esparru formaletik ateratzea, hau da, aisialdiarekin erlazionatzea lortu nahi da.

- Natura ezagutu eta errespetatzeko motibatzen duten jolasak proposatzea

- Haurren harremanetan euskararen erabilera sustatzea

- Euskaraz ere ongi pasa daitezkeela konturatzea

lo permitan. Ante condiciones meteorológicas adversas se podrá utilizar el Aula de Naturaleza Oiangu.

- Las actividades se desarrollarán en pequeños grupos y las ratios de educadores/as/niños/as serán de 1/10.

- Se utilizará una comunicación no violenta entre educadores-alumnos.

- Se trabajarán acciones y actitudes que intenten motivar a los niños y niñas.

- No se obligará a los niños y niñas a realizar actividades.

3.- Criterios pedagógicos

La programación pedagógica y la determinación de todos los elementos necesarios para su ejecución serán elaboradas por la empresa receptora, teniendo en cuenta los siguientes objetivos imprescindibles:

Fomentar el uso del euskera:

- Se pretende sacar el medioambiente del marco formal, es decir, relacionarlo con el tiempo libre.
- Proponer juegos motivadores relacionados con la enseñanza de la naturaleza y el respeto por la misma
- Fomentar inserción de la naturaleza y el respeto a la misma en las relaciones infantiles
- Darse cuenta de que pueden pasar bien también aprendiendo y cuidando la naturaleza

Gozamen eta dibertsiorako esparru ludikoa eskaintzea.

- Natur eskola erakargarria izatea haurrentzat.
- Jolasteko aukerak eskaini eta esperientzia berriak izateko aukerak eman.
- Haurrek beraien ingurua ezagutu dezatela.

Ofrecer un marco lúdico de disfrute diversión.

- Que la escuela sea atractivo para los niños y las niñas.
- Ofrecer oportunidades de juego y nuevas experiencias.
- Que los/as niños/as conozcan su entorno.

Partaideen autonomia pertsonala ahalbidetuko duen esparrua eskaintzea.

- Haurrei erabakiak hartzeko aukera ematea.
- Haurrei egitasmoaren partaide direla sentiaraztea.

Proporcionar un marco que permita la autonomía personal de las personas participantes.

- Permitir la toma de decisiones a los niños y las niñas.
- Hacer sentir a los niños y las niñas como parte del proyecto.

Elkarbizitza eta lankidetza espazio bat eskaintzea neska-mutikoei, era aske batean eta bere interesen arabera, harreman, formazio eta dibertsiorako esparru guztietan parte hartu ahal dezaten.

- Aukera berdintasuna lortzea.
- Eredu estereotipatuak gainditzea.
- Haurren elkarren arteko lankidetza handitzea.
- Jarduera guztietan, bai neska, bai mutilen parte hartzea lortzea.
- Aniztasunaren eskubidea eta gizabanako desberdintasunen kontzientzia hartzea.
- Bestearen eboluzio erritmoaren onarpena lortzea

Ofrecer a los niños y niñas un espacio de convivencia y colaboración que les permita participar, de forma libre y en función de sus intereses, en todos los ámbitos de relación, formación y diversión.

- Conseguir la igualdad de oportunidades.
- Superar modelos estereotipados.
- Aumentar la colaboración entre los niños y niñas.
- Conseguir la participación tanto de chicas como de chicos en todas las actividades.
- El derecho a la diversidad y a la toma de conciencia de las diferencias individuales.
- Obtener la aceptación del ritmo evolutivo del otro

4.- Jardueraren baitan haurrek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltegarriei aurre egin ahal izateko,
esleipen-hartzaileak, urtero, “Natur eskola” aktibitate programa bere hedadura osoan estaliko duen asegurua

4.- Para hacer frente a cualquier tipo de accidente o suceso nocivo que sufran los/as niños/as durante el desarrollo de la actividad, el adjudicatario dispondrá anualmente de un seguro que cubra el programa de actividades de "Natur eskola" en toda su extensión, de acuerdo con lo

izango du, Baldintza Administratiboetan ezarritakoari jarraiki. Polizaren kopia bat udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da jarduera hasi bezpeararako beranduenez.

5.- Covid19 edo antzeko larrialdi egoeraren aurrean, enpresa-hartzaileak gaitasuna izango du bete beharreko osasun arauak bete ahal izateko. Halaber, hezitzaile gehiago beharko balira, talde gutxiago osatuko lirateke horien gastuari aurre egiteko, eta material orokorrerako aurrekontuaren zati bat higiene neurriak betetzeko materialean erabili litzateke. Taldekideen kopurua ere murriz daiteke hala eskatzen badute osasun arauek.

Osasun egoerak behartuta konfinamendu bat ezarriko balitz, jarduera bertan behera geldituko litzateke. Jarduera hau ezingo da telematikoki eskaini.

Erabakiak Udalarekin batera hartuko lirateke, udaleko arauak betez

establecido en las Condiciones Administrativas. Una copia de la póliza deberá presentarse en el registro general del ayuntamiento como máximo antes del inicio de la actividad.

5.- Ante una situación de emergencia de Covid19 o similar, la empresa receptora estará capacitada para cumplir las normas sanitarias aplicables. Asimismo, si se precisara un mayor número de educadores o educadoras se reduciría el número de equipos para hacer frente al gasto de los mismos, y parte del presupuesto para el material general se destinaría al material necesario para el cumplimiento de las medidas de higiene, pudiendo reducirse el número de miembros del equipo si las normas sanitarias así lo requieren.

La aplicación de un confinamiento por causas sanitarias implicará el cese de la actividad. Esta actividad no podrá ser ofertada telemáticamente.

Las decisiones se tomarían conjuntamente con el Ayuntamiento, cumpliendo las normas municipales.

### 4.- ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzuaren iraupena 2 hilabetetakoa izango da (apirila-maiatza). Kontutan izanik haurren eskolaren ordutegia 9.00-17:00 bitartekoa izango dela, enpresa lizitatzaileak zerbitzuaren kronograma bat aurkeztu behar du eskola nola kudeatuko duten agertuz.

<u>Ordutegia</u>

Irteerak egun osokoak izango dira eta eskola orduetan garatuko dira. Haurrak eskolan jaso eta eskolan utziko dira (9.00-17.00). Oiangura oinez igoko dira Oiangu Natur Eskolako hezitzaileek lagunduta.

### 4.- DURACIÓN DEL SERVICIO

La duración del contrato será de dos meses (abril-mayo). Atendiendo al horario que debe de cumplir la escuela de niños de 9:00-17:00 horas, las empresas licitadoras deberán de presentar un cronograma explicativo de como pretender gestionar el servicio.

<u>Horario</u>

Las salidas serán de día completo y se desarrollarán en horario lectivo. Los niños y niñas serán recogidos y entregados en la escuela (9.00-17.00). Subirán a pie a Oiangu acompañados por los educadores de la Natur Eskola.

Kronograma

Irteerak gelaka antolatuko dira eta apirila eta maiatza artean gauzatuko dira nahita nahiez. Irteera egunak irakasleekin adostuko dira.

Cronograma

Las salidas se organizarán por clases y se realizarán entre abril y mayo. Los días de salida se acordarán con el profesorado.

**5.- ZERBITZUAREN BALIABIDEAK**

**5.- RECURSOS DEL SERVICIO.**

**1.- Hezitzaileak**

**1.- Educadores/as**

Enpresa bakoitzak ratioaren arabera hezitzaileek ezinbestekoa izango da baldintza hauek betetzea:

Cada empresa teniendo en cuenta el ratio tiene como requisito indispensable el cumplimiento de las siguientes condiciones:

Lizentziatu-tituluren bat edukitzea; honako arlo hautakoren bateko prestakuntza izatea: Natur zientziak eta/edo Hezkuntza. Hezitzaileetako bat gutxienez Natur zientzietan lizentziatua izan behar da, gainontzekoak, Natur zientzietan lizentziatuak ez badira Hezkuntza arloko Lizentziatuak izan behar dira.

Estar en posesión de un título de Licenciado o Licenciada, con formación en alguna de las siguientes áreas optativas: Ciencias de la Naturaleza y/o Educación. Al menos uno de los educadores debe ser licenciado en Ciencias Naturales, el resto, si no son licenciados en Ciencias Naturales deben ser licenciados en Educación.

Hezitzaile guztiak EGA tituludunak izan behar dira.

Todos los educadores deben ser titulados EGA.

Alderdi horiek justifikatzeko, zerbitzura atxikituko diren langileen zerrenda aurkeztu beharko da, baita ere horien ikasketa eta euskara egiaztagiriaren tituluen fotokopia konpultsatuak.

Para la justificación de estos extremos se deberá presentar la relación del personal adscrito al servicio, así como fotocopias compulsadas de los títulos acreditativos de estudios y euskera de los mismos.

**2.- Jarduerak**

**2.- Actividades**

Proiektu honen helburuak kontutan hartuz enpresek jardueren memoria bat aurkeztu beharko dute. Memoria horretan irteera egunetan gauzatuko diren ekintzen xehetasunak azalduko dira (helburua, jarduera motak, jardueren deskribapena eta ordutegiak).

Las empresas deberán presentar una memoria de actividades teniendo en cuenta los objetivos de este proyecto. En dicha memoria se detallarán las acciones a realizar durante los días de salida (objetivo, tipos de actividades, descripción de actividades y horarios).

Horrez gain, ikastetxeek Oiangu Natur Eskolaren alderdi desberdinak balioztatzeko

También se presentará la hoja de valoración que los centros educativos utilizarán para valorar los diferentes

erabiliko den balorazio orria ere aurkeztuko da.

Jarduerak aurrera eramateko materiala zerbitzu honen arduradunaren esku egongo da.

## 6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza Gaitasuna

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea

2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Erabilera ikasleekin

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz ikasleekin ahozko harremana euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak

aspectos de Oiangu Natur Eskola.

El material para llevar a cabo las actividades estará a disposición del responsable del servicio.

## 6.- CRITERIOS LINGÚISTICOS.

Competencia Lingüística

Con carácter previo a la adjudicación del contrato, la empresa deberá acreditar que las personas que vayan a prestar el servicio poseen la competencia lingüística requerida.

Asimismo, en el caso de que se incorpore una nueva persona que vaya a prestar el servicio con posterioridad a la contratación de la empresa, éstos también deberán acreditar la capacitación lingüística requerida.

La acreditación de la competencia lingüística podrá realizarse por las dos siguientes vías:

1. Presentar el documento acreditativo de que la persona o personas que presten el servicio tienen la competencia lingüística requerida

2 Realizar la prueba acordada por la Administración (el documento obtenido en dicha prueba no tendrá ninguna validez al margen de esta adjudicación).

Uso con el alumnado

La relación oral con el alumnado se realizará en euskera siguiendo los criterios lingüísticos aprobados por la Administración.

Asimismo, todo tipo de notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios, …..) se realizarán en euskera.

(inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak,…..) euskaraz egingo dira.

Erabilera administrazioarekin

Kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz egin behar dira.

Uso con la administración

Todo tipo de comunicación oral o escrita que surja a través de este tipo de contrato (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, etc.) debe realizarse en euskera.

**7.- INGURUMEN IRIZPIDEAK**

Enpresa adjudikaziodunak ekitaldia antolatzeko, garatzeko eta amaitzeko etapa guztietan, plegu honetan jasota dauden ingurumen-irizpide guztiak kontuan izan behar dituzte. Jardueraren helburua ekitaldiaren ingurumen eragina murriztea da. Horretarako zabor gutxiago sortuko da eta jardueran kontsumitutako produktuen fabrikazioarekin lotutako bestelako eraginak ere murriztu beharko dira.

**7.- CRITERIOS AMBIENTALES.**

En todas las etapas de organización, desarrollo y finalización del evento, la empresa adjudicataria deberá tener en cuenta todos los criterios ambientales recogidos en el presente pliego. El objetivo de la actividad es reducir el impacto ambiental del evento. Para ello se reducirá la generación de basura y se deberán reducir otros efectos relacionados con la fabricación de productos consumidos en la actividad.

Jardueren antolaketan

Jarduerak antolatzeko garaian, ingurumenarekiko errespeturik handienarekin kudeatuko dugu hiri-hondakinen bilketa:

Bide publikoan zein jardueraren ondorioz sortutakoak bereizita jasotzen diren hiri-hondakinak (papera/kartoia, plastikozko eta metalezko ontziak, beira, materia organikoa eta errefusa) dagozkien edukiontzietara isuriko dira.

En la organización de las actividades

A la hora de organizar las actividades, gestionaremos con el máximo respeto al medio ambiente la recogida de residuos urbanos:

Los residuos urbanos (papel/cartón, envases plásticos y metálicos, vidrio, materia orgánica y rechazo) procedentes tanto de la vía pública como de la actividad se verterán a sus contenedores correspondientes.

Jardueran erabiltzeko materialak

Dosierraren edukia ahalik eta laburrena izango da (programa, ebaluazio-orria...); paperezko aurkezpenak ez dira hor sartuko. Aurkezpenak webgunean jarri beharko dira parte-hartzaileen eskura, interesdunek handik deskargatu ditzaten.

Materiales a utilizar en la actividad

El contenido del dossier será lo más breve posible (programa, hoja de evaluación, etc.), no incluyéndose las presentaciones en papel. Las presentaciones deberán ponerse a disposición de los participantes en la web para su descarga por los

interesados.

Entregatutako materialek (txostenak,….) ingurumen-irizpideren bat jarraitu beharko dute (paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo zura, etab.).

Los materiales entregados (informes, ….) deberán seguir algún criterio ambiental (papel/plástico reciclado, plástico biodegradable, papel o madera FSC o PEFC, etc.).

Kontratua gauzatzean

Ejecución del contrato

Lana egiten denean sortzen den dokumentazio guztia orrialdeen bi aldeetatik inprimatuko da eta paper birziklatuan.

Toda la documentación generada durante la realización del trabajo se imprimirá a ambos lados de las páginas y en papel reciclado.

2021eko urtarrilaren 27ko Tokiko Gobernu Batzordean onartutako pleguak

Pliegos aprobados en el Junta de Gobierno Local del 27 de enero de 2021